



Urte amaierako topaketa



OLA planeko enpresen arteko Topaketarekin amaitu genuen urtea iaz. Formatua aldatu eta enpresaz enpresa egiteko asmoa zabaldu zen datozen urteei begira ere. Lehena, SJL enpresan egin genuen, eta bertako euskara batzordeko kideek arras ongi azaldu zizkiguten bertan egindako lanak eta enpresaren funtzionamendua.

Bertatik bertara izan genuen aukera SJLn euskara planean egiten diren aurrerapausoen berri jakiteko eta mokadutxo baten bueltan komunean jarri genituen gure iritzi, ideia eta iradokizunak. Hurrengo topaketan Alcampok hartuko du txanda eta hango berri zuzenean izango dugu.



Lantokiko prestakuntza euskaraz 2012

Aurten ere, hirugarren urtez, Don Bosco ikastetxeko Lanbide Heziketako D ereduko ikasle talde batek lantokiko prestakuntza euskaraz egiteko aukera izango du. Don Bosco Ikastetxearen eta Oarsoaldeako Euskara Batzordearen ekimenez, ikasleek lantokiko praktika aldia euskaraz egitea lortuko da. Aurten 13 ikaslek egingo dituzte praktikak euskaraz 8 enpresatan. Inasmet Tecnalía, ABB Niessen, Papresa, Easo Motor, Lurauto, Txingura, IDK eta Irungo CAFen. Ekimen honetan parte hartzeko enpresek hainbat baldintza edo betebeharrak izaten dituzte; Instruktoe euskalduna bermatzea, ikasleei harrera euskaraz egitea (dokumentazioa barne), ikaslea praktika aldiran mugituko den ingurunean errotulazioa euskaraz ere egon dadin bermatzea eta ikasleak eguneroko lanean usuen erabiliko duen dokumentazio eta tresneria euskaraz ere egotea. Hasierako diagnostikotxoak eta geroko urratsak egiteko Ahize aholkularitza etxearen zerbitzuak kontratatuta ditu Oarsoaldeko Euskara Batzordeak. Halaber, formazio saio bereziak eta balorazio lanak Ahizeren bitartez burutzen dira. OLA planean, edo euskara plana duten enpresen kasuetan, aholkularitza lan hauek dagokion aholkularitza etxeak egiten ditu.

Diru laguntzen esleipena

Diru laguntzen zuriaketak izan genituen urte amaieran, eta urte hasiera horien esleipena ezagutuz hasi genuen. Enpresa bakoitzari emandako laguntzak hemen dituzue.



2012ko martxoaren 7an
39. zk.

OLA planeko enpresen agerkaria



OLA planeko enpresetako planen deskarguak



OARSOALDEA BA

Oarsoaldea Garapen Agentzia

Oarsoaldea
eskualdearen garapenerako elkartera, b.a.
sociedad de desarrollo comarcal, s.a.

2011n abiatutako edo aurreikusitako lanak gauzatu hasi du urtea Oarsoaldeak euskarari dagokionez. Batetik, azaroaz geroztik, bi trebatzaile ari dira lanean langileei laguntza ematen. Langile guztien beharren fitxak bete ondotik, bakoitzarekin lehenengo saioa egin zuten eta euren beharrak zehaztu zituzten. Orain behar horiei erantzuten ari dira saio gehiagoren bidez, laguntza puntualaren bidez edota tresnak eskainiz. Honi lotuta, TELP saio berezia hartu dute enpresako langile guztiak urtarrilean. Bestetik, abenduan egindako neurketaren datuak interpretatzen ari dira. Eskuartean izatean, neurri berriak erabakiko dira. Azkenik, Mondragon Linguaren eskutik auto-ikaskuntza ikastaroa egiten hasi dira urtarrilean enpresako 20 langile. Astean, tutoretza ordu bat, skype saioa eta 2 orduko ariketak dituzte aurreikusita. Azaroan amaituko dute ikastaroa.

EMUNeko teknikaria: **Amaia Rodriguez**
Koordinatzailea: **Joxe Luix Agirretxe**



SJL SAN JOSE LOPEZ
SAN JOSE & LOPEZ

Euskara Batzordeak egindako bi egutegi banatuz bukatu zuten urtea; bat mahai ganean jartzekoa, bestea txikia poltsikokoa. Bestalde, Hizkuntza irizpideak Kalitate Sistemaren barruan sartu dira eta bilera egin da arduradunekin nola jokatu ikusteko. Momentuz irizpide hauen berri emango da, eta Kalitatetik bete beharrekoak direla esango da. 2012rako helburuak zehazteko bitartekariekin eta departamentu arduradunekin bilduko dira. Telefono hartzailearentzako Mintza saioak aurrera jarraitzen du bi astez behin.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**
Planaren koordinatzailea: **Idoia Ibarzabal**



SOCIEDAD HISPANICA DE DESARROLLO

Beste hainbat arlotako helburuak betetzeaz gain, bereziki Madrilen egiten den karteleritzan ere euskara sartzea lortzen hasi dira. Horrek sekulako inpaktua du saltokiko hizkuntza-paisaian, eta azpimarratzekoa da bezeroen zorionak ere jaso zituztela. 2012ra begira lorpen horiek finkatzea da ezarri duten helburuetako bat, baita zuzendaritzak hartutako konpromisoetan sakontzea eta hizkuntza-irizpideak berraztertzea ere. Aldaketa bat egingo dute aurten: langileen euskararen ezagutzan eragiteko ohiko formatuko eskolak eman ordez, mintza saioak antolatuko dituzte hartzaileen mailara egokitutakoak. Euskararen erabileran eragiteko, berriz, saltokiko sekzio bakoitzaren hiztegi terminologikoa osatuko dute eta langileen artean banatuko dute. Gainera, euskara-planari eta euskarari buruzko berriak jasotzen dituen Euskararen Txokoa indartzeko ekintzak ere sartu dituzte 2012ko plangintzan.

MARA-MARako teknikaria: **Aritz Enparan**
Planaren koordinatzailea: **Olatz Amonarriz**



LARRIALDIAK/ LRK emergentziak

Urtarrilean hausnarketa sakona egin da eta plana bi ildo nagusitan banatzea erabaki da, administrazioari dagokiona batetik, eta kalean zerbitzua ematen duten langileena bestetik. Alor administratiboari dagokionez, euskarako helburuak kudeaketa orokorrean txertatzeko ahalegina egingo da eta kalitate sisteman sartu. Horretarako, langile guztien ezagutza datuak giza baliabideetako aplikazioan jaso nahi dira, lan-bikoteetan euskaldun bat bermatu, web orria euskaraz eskaini eta euskaratzeko falta dena itzuli. Langileei dagokienez, dagoen euskal komunitatea identifikatu eta bisual ageriko egin nahi da. Horretarako, dauden indarrak potentziatuko dira, beti ere, alde ludikoa ardatz izanda.

EMUNeko teknikaria: **Ainhoa Lasa**

Larrialdia: Planaren koordinatzailea: **Jokin Oroz**

LRK emergentziak: Planaren koordinatzailea: **Ainhoa Olaizola**



ASEA BROWN BOVERI S.A.

2011 bukatzeko balorazioa egin zuten eta balorazio horretatik atera dituzte 2012rako helburuak. Barruko harremanetan saiatuko dira euskararen erabilera areagotzen, batik bat, ahozko erabilera areagotzeko ekimen berezi baten bidez eta Niesseneko hizkuntza irizpideak bete daitezten auditoria egin eta ekintza zuzentzaileak proposatuta. Dena dela, Euskal Herriko bezeroei begira ere urratsak egiteko helburua definitu da aurten, Niessenek eskaintzen duen produktu etako bat euskaraz eskainita. Motibazioari dagokionez ere urteroko ohitura bihurtu diren ekimenei eustez gain (euskararen nazioarteko eguna, argazki lehiaketa...) jendearen parte hartze masiboa eragiteko ekimenei bat antolatuko da. Ezagutzari dagokionez ere, helburuak jarri dituzte, eta besteak, beste, e-mailak euskaraz idazteko formazioa emango da.

EMUNeko teknikaria: **Naiara Etxeberria**

Planaren koordinatzailea: **Txus Alfonso**



TAJO

Urtea bukatzerako helburu nagusiak betetzat eman dira. Urtarrilaren zati handiena diru laguntzak zuzitzen pasa dute; gainerakoan Departamentu guztietako Departamentu buru eta ordezkariekin biltzen ari dira 2012rako Gestio Planerako ekarpenak jasotzeko: gehientsuenekin egon dira. Euskara Batzordean ere hainbat ekarpen jaso dute. Aurrera begira departamentuetako bitartekariekin lan egin nahi da, eta horrekin lotuta kolektibo guztiarengana iritsi. Mintza saioak aurrera jarraitzen du bi astez behin.

EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza**

Planaren koordinatzailea: **Ane Aldaraborda**